



el\*

# I. Erakundeen arteko akordioa, emakumeen aurkako indarkeriarako arreta eta aurreneurriak koordinatzeko



## AURKEZPENA

Urte batzuk iragan dira berdintasunaren arloko politika publikoak abiatu zirenetik. Urte horietan, gainera, lan egin dute berdintasunaren arloan erakunde, elkarte, gizarte eragile eta hiritarren mugimenduek. Ondorioz, gizarteak eta herritarrek barneratua dute sexu batak besteari erasotzeko posibilitate hutsak, nolanhikoa dela ere, ez duela errazten pertsonaren garapen demokratikoa, ez emakumeen herritartasun betea, eta atentatu larria dela justiziaren, bakearen eta generoen arteko berdintasunaren aurka.

Genero desberdintasun eta diskriminazio egiturazkoaren eta patriarkalaren adierazle bat da emakumeen aurkako indarkeria. Horregatik, nazioarteko, Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoetako erakundeek emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errefusatzeko dituzte, eta ahaleginak biltzen, gizartea sentsibilizatzen, bortizkeriaren aurka borrokatzen, baita ezabatzen laguntzeko ere. Erakundeak ahalegintzen dira, halaber, indarkeria nozitzen duten emakumeen eta haien babesean dauden pertsonen bizi baldintzak eta ongizatea hobetzen.



Nafarroako Foru Komunitatearen lehentasunetako bat da emakumeen aurkako indarkeriaren kontra borrokatzea. Konpromiso hau, arau juridiko, plan eta lan proiektu zenbaitetan gorpuztu dena, jarduketa bartzuen emaitza da. Jarduketa horiek, lehen aldiz eta modu koordinatuan, 2002. urtean adierazi ziren *Etxeko indarkeriaren edo/eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko Erakundeen arteko I. Akordioan*. Dena dela, azken urteetan aurrerapen tekniko eta sozialak izan eta legeetan aldaketak sartu baitira, beharrezkoa da Erakundeen arteko Koordinaziorako beste Akordio bat, azken urteetan izandako aurrerapenak eransteko eta jarduketa berriak bideratzeko.

## **NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA**

*Iruñean, 2010eko abenduaren 17an.*

### **ELKARTU DIRA:**

**Miguel Sanz Sesma jauna,**

Nafarroako Gobernuaren ordezkaria.

**Elma Saiz Delgado andrea,**

Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren izenean.

**Juan Manuel Fernandez Martinez jauna,**

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkaria.

**Francisco Javier Muñoz Cuesta jauna,**

Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiaren ordezkaria.

**Jesús M<sup>a</sup> García Antón jauna,**

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkaria.





## ADIERAZI DUTE:

1. Emakumeek jasaten duten modu askotako indarkeria atentatu larria da haien duintasunaren eta osotasunaren aurka eta herritar gisa dituzten eskubideen aurka; gainera, indarkeria horrek ordena soziala hausten du, oinarritzko giza eskubideak urratzen baititu modu onartezinean.
2. Emakumeen aurkako indarkeriaren iturri dira gizarte sistema patriarkala eta arlo guztietan genero desberdintasun eta diskriminazio egiturazkoa egotea.
3. Emakumeen aurkako indarkeria, aipatzeko bortizkeria matxista, zenbait termino erabili ohi dira, hala nola genero indarkeria, etxeko indarkeria, indarkeria sexista edo emakumeen aurkako tratu txarrak. Errealitate horren heterogeneotasunak atxikiak ditu kontzeptuaren definizio zehatza eta ongi mugatua ezartzeko zailtasunak. Izan ere, kontzeptuan biltzen dira etxean edo familian gertatzen diren ondoko hauek: eraso fisikoak, psikologikoak eta/edo sexualak eta erasoak behin eta berriz, denbora luzean edo aldian-aldian gertatzea, eta erasotzailea senarra, mutil-laguna edota semea, edo familiako beste gizona bat izatea. Horiek denak, familiarik kanpoko eremuan edo eremu publikoan, sexu askatasunaren aurkako delitu dira edo sexu esplotaziorako emakumeen trafikoaren delitu, besteak beste.
4. Emakumeen aurkako indarkeria adin, gizatalde, kultura eta herrialde guztietan gertatzen da eta, duen eraginagatik, emakumeek pairatzen dituzten ondorio fisiko eta psikikoengatik, eta duen kostu sozial eta ekonomikoarengatik, arazo izugarria da.
5. Behar beharrezkoa da botere publikoek koordinaturik esku hartzea eta jarduteko prozedura homogeneoak ezartzea, horrelako egoeran dauden emakumeei arreta eta babes integrala emateko, bai osasun arloan, bai arlo polizialean, judizialean eta sozialean.
6. Jakitun gaude esku-hartze horrek gizartearen aldaketa dakarrela eta emakumei laguntzea baino haratago joan behar duela. Beraz, erakundeek zenbait arlotan babes emateaz gain, ondoko hauek egin beharko lituzkete: prozesu guztian parte hartu behar duten



profesionalentzako prestakuntza planak abiaraztea; prebentziorako hezkuntza-programak, haur eta gazteen belaunaldi berrientzat; familiei laguntzeko baliabideen plangintza, gerta litezkeen indarkeria egoerei aurre hartzeko; errealitate honi buruz sentsibilizatze eta errealitate hau aztertzeko jarduerak, gizarte guztira zabalduko liratekeenak. Horretaz gainera, funtsezkoa da familiei laguntzeko baliabideen gaineko plangintza, etorkizunean gerta litezkeen indarkeria egoerei aurre hartzeko balio baitu.

7. Estatuko eta nazioarteko gainerako gizarteetan bezala, hemen ere gero eta gehiago ikusten da emakumeen aurkako indarkeria eta gero eta emakume gehiagok eskatzen dituzte informazioa, aholkua edo arreta eta harrera bereziko zerbitzuak.
8. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko botere publikoek esku hartu beharra bildua dago nazioarteko dokumentu ugaritan: Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak desagerrarazteko Nazio Batuen Konbentzioa (1979); Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko Vienako Adierazpena (1993); Emakumeei buruzko IV. Konferentziako Adierazpena eta Ekintzarako Plataforma (Beijing, 1995).

Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioaren Protokolo Fakultatiboak 2000ko abenduaren 22an hartu zuen indarra eta Espainiak berretsi egin zuen. Protokoloa emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokaren bultzatzaile izateaz gainera, haren babesean indarkeriaren aurkako plan integralak ezarri dituzte herrialde sinatzaileek.

Europako Kontseiluak ere aztertu du emakumeen aurkako indarkeria, eragozpen handitzat baitauka gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako, hainbeste non Gomendioen eta Ebazpenen bidez emakumeen aurkako indarkeria borrokatzea erakunde horren lehen-tasunetako bat baita 1993. urtetik.

Bestalde, Europar Batasunak, batez ere Nazio Batuen Erakundeko eta Europako Kontseiluko zenbait testutan oinarriturik, bere politiketan garrantzi gero eta handiagoa eman dio emakumeen aurkako indarkeriari, hainbat Ebazpen, Gomendio, Adierazpen, Erabaki, Zuzentarau eta



Ekintza onestearen bidez. Denek aitortzen dute errealitate horri aurka egin behar zaiola. Europako Parlamentuak indarkeriaren aurkako Zero Tolerantzia Kanpaina sustatu zuen 1997an, jadanik. Kanpaina hori 1999ko martxoan hasi zen eta helburua zuen iritzi publikoa mobilizatzea indarkeria ez onartzeko jarrera baten alde. Europako Parlamentuak, orobat, DAPHNE Ekimena abiarazi zuen 1997. urtean, adingabe, nerabe eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio-rako neurriak sustatzeko. 2000. urtean, bortizkeria hori borrokatzeko Programa oso bilakatu zen.

Azken urteetan, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez, zuzenean inplikaturako organismoen lankidetzarekin, neurri batzuk planifikatu zituen, ekimen integral koordinatu bat osatzen dutenak. Horietan biltzen ziren Nafarroako botere publikoen funtsezko lerroak emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta haren kontra esku hartzeko. Gisa horretan, 1997ko maiatzean, tratu txarrak eta erasoak jasan dituzten Nafarroako emakumeei buruzko Departamentu arteko Batzordea eratu zen, erakunde juridiko, sanitario, polizial eta sozialen ordezkariekin, ahaleginak bildu eta elkarrekin jarduteko protokolo bat egiteko asmoz, arreta integrala eta azkarra ematearren, izapide eta ekintza alferrik bikoiztuak alde batera utzita. 1998tik Nafarroako Foru Komunitate guztira zabaldu zen koordinazio hori eta, baliabide berrieekin eta Nafarroako Gobernuak sustatutako ekimenekin, segurtasun indarren eta gizarteko agenteen lankidetzarekin batera, instituzioen arteko lankidetzari handiagotu egin zen eta aldeek emakumeen arreta etengabe hobetzeko konpromisoa hartu zuten.

Testuinguru honetan, 2002ko maiatzaren 16an, gaian zeresana duten agintari gorenak *Etxeko indarkeriaren edo/eta sexu indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntza integrala emateko Erakundeen arteko Akordioa* sinatu zuten. Akordio horren helburua zen erakundeen arteko koordinazioa hobetu eta Nafarroako Foru Komunitate guztian jarduteko jarraibide berdinak ezartzea, emakumeei egokiago laguntzeko eta erasotzaileak epailearen aurrera eramateko.

Akordioaren arabera, jarraipena egiteko eta hartutako konpromisoak betetzeko, Jarraipen Batzordea eta Lan Azpibatzerdeak sortu ziren,

erakunde parte-hartzaileen ordezkari politiko eta teknikoez osatuak. Akordioa izenpetzearekin eta aipatu organoetan etengabe egindako lanarekin, emakumeen aurkako indarkeria mahairatu da eta hainbat jarduketa koordinatu dira. Zehazki, Akordioa abiarazteak esku-hartze publiko handiagoa ekarri du, baita erakundeen arteko lankidetzaren sendagoa eta egonkorragoa ere. Izan ere, gai honetan, Botere Publikoen eta gizartearen konpromisoa eta lana ezinbestekoak dira.

9. Erakundeen arteko 2002ko Akordioa sinatu ondoren, aldaketa handiak etorri dira lege aldetik, gai honetan esku-hartze publikoari dagokionez. Horiei esker tresna juridiko berriak sortu dira (Babesteko Aginduak, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko epaitegia, Tratu txarren kasuetarako Fiskaltza, etab.), emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptuan sakondu da, kontuan hartu da hezkuntzaren eremua eta profesionalen prestakuntzako, heziketa garaitik jadanik esku hartzeko. Gainera, emakumeen eskubide ekonomikoak ere kontuan hartu dira, zenbait neurri erabiliz. Araudi berri honetan, aipatzekoak dira:





**Estatuaren** eremuan:

- ▶ 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, herritarren segurtasunaren, etxeko indarkeriaren eta atzerritarrak gizarteratzearen arloan neurri zehatzak hartzeari buruzkoa.
- ▶ 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko Indarkeriaren Biktimak babesteko Agindua arautzeari buruzkoa.
- ▶ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzkoa.
- ▶ 253/2006 Errege Dekretua, martxoaren 3koa, Emakumeen aurkako bortizkeriaren Estatuko behatokiaren funtzioak, funtzionamendu arauak eta osaera ezartzen dituena.
- ▶ 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunari buruzkoa.

**Nafarroako Foru Komunitatearen** eremuan:

- ▶ 22/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa. (Martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legeak aldatua).
- ▶ 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeari buruzkoa.
- ▶ 90/2006 Foru Dekretua, abenduaren 18koa, Nafarroako Berdintasunerako Institutua izeneko erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena.
- ▶ 16/2007 Foru Dekretua, otsailaren 26koa, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena.



Nabarmendu behar da, orobat, 2002ko lehen Akordioa sinatu ondoren, azken urteetan I. Akordioko erakundeek sinatu dituztela akordioak, hitzarmenak eta protokolo sektorialak, eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak gutunak igorri eta jarraibideak eman dituela. Bestalde, aipatzekoa da Barne Ministerioko Segurtasunerako Estatu Idazkaritzak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Estatuko Gobernuak eta Autonomia Erkidegoek zenbait erabaki hartu dituztela eta zenbait jarraibide eman. Gainera, ekintza batzuk aurrera eramán dira. Adibidez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko partaide diren Etxeko eta Genero indarkeriako adituek *Genero indarkeriaren aurkako jarduera judizialaren irizpideen gidaliburua* argitaratu dute. Horiek denek, ukitutako erakundeen arteko koordinazioa hobetzen dute.

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. planak (2006-2010) helburutzat dauzka *“Etxeko indarkeriaren edo/eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko Erakundeen arteko Akordioaren emaitza den jarduteko protokoloa eguneratzea, legearen eta teknologiaren arloetako berrikuntzen arabera”*. (9. Helburuko 9.2.2. Ekintza) eta *“Etxeko indarkeriaren edo/eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen funtzionamendua arautzea eta hari eraginkortasun handiagoa ematea”*.

Horrela, erakundeek sinatutako konpromisoek, lege aldaketek eta I. Akordioa sinatu zenetik izandako aldaketa teknologikoek beharrezko egiten dute Erakundeen arteko II. Akordioa sinatzea. II. Akordioak legegaren eta teknikaren eremuetako berrikuntzak jaso ditu, eta horrelako egoeran dauden emakumeei eta beren ardurapekoei laguntza integrala emateko jarduera legal, polizial, sanitario eta sozial guztiak koordinatu eta haien euskarri izanen da. Akordio hau nahitaezko bidea da emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeke.



Horregatik guztiagatik, parte hartzen duten aldeek, daukaten ordezkartiazaz baliaturik,

## HITZARTU DUTE:

### LEHENA.

---

Ondoko hauek dira Akordio honen helburuak: batetik, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan zerikusia duten erakundeen artean ahalik eta koordinazio handiena eta hoberena lortzea eta bortizkeriaren biktimei laguntzea; bestetik, Nafarroako Foru Komunitate guztian jarduteko jarraibide berdinak ezartzea, kalitateko arreta bermatzeko bai osasun arloan, bai arlo polizialean, judizialean eta sozialean eta prebentzio lana egitea, hezitzeko eta sentsibilizatzeko neurrien bidez.

### BIGARRENA.

---

Erakunde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute emakumeei laguntzeko tratu eta aukera berdinen printzipioei jarraikiz, laguntza integrala, pertsonalizatua eta behar den garaian emanez. Horrela, bigarren mailako biktimizazioa saihestuko da eta emakumeek eta haien ardurapean dauden adingabe eta beste pertsonak beren bizitza-traza berreskuratuko dute.

Konpromisoa hartzen dute, orobat, haien eskumenen eremuan, emakumeen eta gizonen artean tratu eta aukera berdintasuna bultzatuko dituzten ekintzak abiarazteko; baita profesionalak prestatzeko ere, emakumeen aurkako indarkeriaren egiturazko arrazoietan zein biktimen behar berezietan. Hori guztia bakoitzaren jarduera eremuak eta independentzia judiziala errespetatuz.

### HIRUGARRENA.

---

Emakumeen aurkako indarkeria genero bereizkeria larrienetako bat dela kontsideratzen da eta oinarrizko giza eskubideak urratzen dituela. 1/2004 Lege Organikoak ezarritako genero indarkeriaren gaineko kontzeptura mugatu gabe, halakotzat hartuko dira emakumeari kalte fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak ekartzen dizkietenak edo ekar



diezazkioketen genero indarkeriako ekintza guztiak. Barrenean sartzen dira horiek egiteko mehatxuak, derrigortzeak edo askatasuna apetaren arabera kentzea ere, familia, lan edo gizartearen eremuetan gertatzen direla eta toki publikoan zein pribatuan eta, zehazki, indarra duen Zigor Kodean delitutzat edo hutsegitetzat hartzen direnak.

### **LAUGARRENA.**

---

Emakumeen aurka indarkeriarik izan dela ikastean, Akordio honetako jarduera koordinatuko protokoloen arabera aritzeko konpromisoa hartzen dute erakunde sinatzaileek, bakoitzaren eskumenak eta, bereziki, independentzia judiziala osoki errespetatuz

### **BOSGARRENA.**

---

Aipatu protokolo neurriak eta jarraibideak aplikatzeko, erakunde sinatzaileek, beren eskumenen barrenean, jarduera hauek eramanen dituzte aurrera:

- a) **Zabalkundea:** jarduteko protokoloaren edukiak jakinaraztea erakunde sinatzaileetako edo haien meneko profesionali, emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko arau-hauste penalak pertsegitzeko eta biktimei laguntzeko ardura badute. Horretarako baliabide egokienak erabiliko dira kasu bakoitzean: igortzea Akordio eta protokolo honetako edukiak, jarraibideak, gutunak, eskuorriak, etab.
- b) **Prestakuntza:** emakumeen aurkako indarkeria kasuetan izan beharreko jokoerari buruzko etengabeko prestakuntza-planak ezartzea. Erakunde sinatzaileetako edo haien meneko profesionalentzako jarduera protokoloan diren jarraibideak bereziki aipatuko dira. Emakumei laguntzeko ardura izan behar dute profesional horiek.
- c) **Baliabideen hornidura:** behar diren giza baliabideak eta baliabide material eta teknikoak jartzea, Akordio honen edukiak aplikatuko direla bermatzeko.



## SEIGARRENA.

---

Akordio honetako edukiei behar duten eraginkortasuna emateko Batzorde Iraunkor bat sortu da, kide anitzeko organo gisa. Bertan parte hartuko dute Akordioa sinatu dutenek edo haiek ordezkari izendatzen dituztenek.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria edo haiek delegatzen duena izanen da Batzorde Iraunkorreko lehendakari. Idazkari, berriz, Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailea.

Batzordearen zereginak dira:

- a) Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egingen dituen jarraipenaren urteroko txostenen berri izatea, Akordio honen Jarraipen Batzordeak onesten dituenean.
- b) Jakitea erakundeen arteko Akordioaren eta jarduera protokoloaren edukien aplikazioaren ebaluazioa, Jarraipen Batzordeak egingina. Bidezkoa denean, gerta daitezkeen desbiderapenak zuzentzeko proposamenak onetsiko dituzte, baita baliabideak jartzeko direnak ere.
- c) Ezagutzea erakundeen arteko talde teknikoen eskumenekin lotutako jarduera berariazkoei buruzko txostenak, Jarraipen Batzordeak burutuak. Bidezkoa denean, hark igorritako proposamenak onetsiko ditu, baita baliabideak jartzeko direnak ere.

Batzorde Iraunkorrek urtean ohiko bilera bat egingen du, gutxienez. Gainera, bilera bereziak egin ditzake, lehendakaritzak edo edozein kidek eskatuta. Horrelakoetan, idatziz eskatuko da. Eztabaidatzeko proposatzen diren gaien zergatiak erantsiko dira bertan. Lehendakaritzak, bilera eskatu eta ondoko hamabost egunetan deituko du bilera berezia. Gai-zerrendan nahitaez sartuko dira eskatu diren puntuak. Lehendakaritzak beste batzuk ere erants ditzake.



## ZAZPIGARRENA.

---

Erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzarren eta Akordio honen betearazpenaren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetzeko, Jarraipen Batzorde bat sortu da, aztertzeko eta eztabaidatzeko kide anitzeko organo gisa.

Ondoko hauek egonen dira Jarraipen Batzordean:

- ✦ **Lehendakaritza:** Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailea.
- ✦ **Lehendakariordetza:** Nafarroako Berdintasunerako Institutua.
- ✦ **Idazkari-lana:** Nafarroako Berdintasunerako Institutua.
- ✦ **Kideak:** Akordio hau sinatu duten aldeek behar den kide kopurua izendatuko dute Batzorde honetan parte hartzeko, jarritako helburuak hobekien betetzarren. Batzordean ondoko erakunde hauen ordezkari bana egonen da, gutxienez:
  - Justizian eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
  - Hezkuntzan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
  - Osasunean eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
  - Gizarte gaietan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
  - Familia gaietan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
  - Etxebizitzan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
  - Enpleguan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
  - Immigrazioan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.



- Babes zibilean eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Lege eta Auzitegi medikuntzan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Foruzaingoa.
- Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritza.
- Polizia Nazionala.
- Guardia Zibila.
- Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusia.
- BJKN – Nafarroako Auzitegi Nagusia.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- Iruñeko Udaltzaingoa.
- Emakumeei laguntza juridikoa emateko Zerbitzua.

Batzorde Iraunkorrak urtean bi bilera eginen ditu, gutxienez. Gainera, bilera bereziak egin ditzake, lehendakaritzak edo kideen bi herenek eskatuta. Horrelakoetan, idatziz eskatuko da. Eztabaidatzeko proposatzen diren gaien zergatiak erantsiko dira bertan. Lehendakaritzak, bilera eskatu eta ondoko hamabost egunetan deituko du bilera berezia. Gai zerrendan nahitaez sartuko dira eskatu diren puntuak. Lehendakaritzak beste batzuk ere erants ditzake.

## **ZORTZIGARRENA.**

---

Bere eginkizunak egoki betetzeko Jarraipen Batzordeari beharrezko laguntza ematearren, Erakundeen arteko Talde Teknikoak sortu dira. Bertan egonen dira Batzordeko erakundeen ordezkariek, haiek izendatuak gorago aipatu helburua betetzeko. Haien kopurua, osaketa, eginkizun eta eskumenak geroago arautuko dira.



## **BEDERATZIGARRENA.**

---

Batzorde Iraunkorrak, Jarraipen Batzordeak eta Erakundeen arteko Talde Teknikoek aplikagarri den legeriaren arabera funtzionatuko dute eta hartuko dituzte erabakiak.

## **HAMARGARRENA**

---

Sinatzen den egunetik aurrera izanen ditu ondorioak Akordio honek eta urte baterako balioko du. Isilbidez luzatuko da, alde batek ez badio espresuki uko egiten.





Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, Akordio hau sinatu dute, goian adierazitako lekuan eta egunean.

**NAFARROAKO GOBERNUAREN IZENEAN**




*Miguel Sanz Sesma jauna*

**GOBERNUAK NAFARROAN DUEN ORDEZKARITZAREN IZENEAN**




*Elma Saiz Delgado andrea*

**BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IZENEAN**




*Juan Manuel Fernandez Martinez jauna*

**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO FISKALTZA NAGUSIAREN IZENEAN**



*Francisco Javier Muñoz Cuesta jauna*

**NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEEN FEDERAZIOAREN IZENEAN**



*Jesús María García Antón jauna*